



ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA



Eibar, taller-hiria / ciudad-taller

ARMAGINTZAREN MUSEOA

MEMORIA 2015



ARMAGINTZAREN MUSEOA
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA



Eibar, taller-hiria / ciudad-taller

0. 2015 EGUTEGIA

1. BISITAK

a) Museoko bisitariak

b) Webguneak 2015ean izandako bisitariak

d) Eibarko arma eta industria ondarearen inguruan jasotako kontsultak

2. JARDUERAK

a) **Funtsen dokumentazioa: Euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. Bildumak zaintzea eta zaharberritzea.**

a1. Museoaren fondoak euskarri informatikoan inbentariatu eta katalogatzea. VII. fasea 2015. urtea.

a2. Fondoaren zaharberritze lana 2015

b) **Edukiak zabaltzeko programa**

c1. Bisita gidatuak

c2. Tailer eta ekitaldiak

- Museora jolastera
- Liburuaren aurkezpena
- *Animal culture*
- Museoen Nazioarteko Eguna
- Gureak 40
- *We are magma*
- Publiko frantsesarentzako edukiak: webgunea eta salako testuak
- Material didaktikoa eta irakasleentzako gidaliburua
- Mugikortasun Astea
- Aste teknologikoa
- Santa barbara Eguna
- Gabonetako tailerra

c3 Eibar hiriko Industria Ondarearen Ibilbiderako edukien sorrera QR kodeen bidez

c4. Armagintzaren Museoko erakusketa iraunkorreko katalogoaren ediziorako beharrezko edukien lanketa

d) **Publizitatea eta difusioa**

e) **Funtsen kudeaketa**

f) **Lanbide**

g) **2015eko Diru-sarreraren eta gastuen balantzea .**

0. 2015 EGUTEGIA

URTARRILA

			1	2	3	4							1							1
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	2	3	4	5	6	7	8
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	9	10	11	12	13	14	15
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	16	17	18	19	20	21	22
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28		23	24	25	26	27	28	29
														30	31					

OTSAILA

MARTXOA

APIRILA

MAIATZA

EKAINA

		1	2	3	4	5					1	2	3	1	2	3	4	5	6	7
6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14
13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21
20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28
27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31	29	30					

UZTAILA

ABUZTUA

IRAILA

		1	2	3	4	5					1	2		1	2	3	4	5	1	
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	8
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	15
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	22
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30				
							31													

URRIA

AZAROA

ABENDUA

			1	2	3	4							1		1	2	3	4	5	6
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31			
							30													

Ordutegia

	Museoa itxita		4 orduz irekita		
	3 orduz irekita		3ordu eta 30min irekita		

Asteazkenetik larunbatera 16:00etatik 20:00etara
 Igandetan 10:00etatik 13:00etara
 Abuztua. Asteartetik ostiralera 10:00etatik 13:30era
 Ekainak 25etik irailak 29ra asteburutan itxita

1. 2015 BISITAK

1.a) Museoko bisitariak

2015 urtea	Bisitari kopurua	G	E	U	ikasleak	irakalesleak	jubilatuak	ikerlariak	gidak	enpresak	langabetuak	besteak
Urtarrila	311	171	118	22	27	2	133	3	0	0	26	116
Otsaila	317	163	134	20	20	1	129	13	0	0	12	142
Martxoa	615	225	187	203	203	13	248	0	0	1	30	122
Apirila	380	215	153	12	141	9	70	0	6	22	10	123
Maiatza	604	204	272	128	140	53	150	0	1	3	1	220
Ekaina	242	105	124	13	33	0	52	2	0	0	0	153
Uztaila	191	101	59	31	33	0	76	5	1	0	0	77
Abuztua	145	74	49	22	34	0	18	1	0	0	0	0
Iraila	155	84	63	8	8	0	56	3	1	0	5	73
Urria	676	262	170	244	217	34	100	7	1	51	42	197
Azaroa	754	397	312	45	134	5	214	0	3	2	1	385
Abendua	442	251	155	36	36	4	172	0	0	0	2	228
Guztira	4832	2252	1796	784	1026	121	1418	34	13	79	129	1836

Urteak	Bisitariak Kopurua GUZTIRA	Irekitako egunak	Eguneko batezbesteko bisitariak
2007	5.221	275	18,98
2008	2.035	279	7,29
2009	4.360	274	15,91
2010	3980	229	17,37
2011	3549	226	15,70
2012	2686	218	12,32
2013	2637	223	11,82
2014	3517	232	15,15
2015	4832	230	21
Guztira	32.817	2186	15,01

2015. urtean zehar, 4832 bisitari izan ditu museoak, igoera nabarmena izan da datuetan, bai bisita librean, bai eta taldeka. Hilabeteko, 402 pertsona izan dira, batezbesteko, 1325 gehiago, pasa den urteko datuak kontutan hartuz. Azaroan ibili da jende gehien (722), ondoren urrian (627), martxoan (614) eta maiatzean (605), hurrenez hurren.

Udaran jatsi egin da bisitari kopurua. Honela, **komenigarria da museoaren promozioa** lantzea, turismoaren ikuspegitik, Eskualdeko Garapen Agentziaren bidez, batez ere. Interesgarria da Museoa eskualdeko beste kultur baliabideekin harremanetan jarri eta guztiak helmuga turistikoa bateratua bihurtzea.


Bisita egiteko moduaren arabera banaketa eginez gero, banaka ezagutu dutenak nabarmendu dira, 3.393 pertsona, guztira. Aldiz, taldean hurbildu direnak 1.439 izan dira. Modalitate honetan osatutako bisiten artean, eskolatik etorritakoak izan dira gehiengoa, nahiz eta, bertako zein kanpoko elkarte edota taldeetatik hurbildutakoak ere izan diren.

2015eko urtarrilaz geroztik, bisitarien arreta zein artatzeaz eta hezkuntza zerbitzuaz arduratu den enpresa Ereiten izan da. Aurreikusitako bezala, zerbitzu honen koordinatzailea Larraitx Arretxea izan da.

Aurreko enpresak hasitako lanaren jarraipena izan da aurtengoa, lan-taldea mantendu da, beharrezkoa zenean, hutsuneak osatzeko langile gehiago jarri: Oihane Perez eta Larraitx Arretxea izan dira horietako batzuk, adibidez. Honela, kalitatezko lana egin da, arazorik gabe.

Kontratatutako zerbitzua museoko irekiera ordutegian eskaini da, gehienetan, nahiz eta, zenbait taldeek hala eskatuta, ordutegi horretatik kanpo lan egin den. Kontratatutako enpresako kideek erantzun egokia eman dute beti, unean-uneko behar bereziak zirela eta langile kopuru egokia eskainiz. Batzuetan talde motagatik, besteetan taldeen hizkuntza eskaera medio.

1.b) 2015eko bisitak webgunean




2015 urtea	Bisitatutako orrialdeak (1)	Bisitak (2)	Lehen bisita (3)	Birritan bisitatutakoak
Batezbestekoa	152,833	47,504	41,685	5,819
guztira	12,737	3,909	3,474	485

2015 urtea	Bisitatutako orrialdeak (1)	Bisitak (2)	Lehen bisita (3)	Birritan bisitatutakoak
Aben 2015	13,632	3,981	3,500	481
Azar 2015	12,084	3,831	3,344	487
Urr 2015	13,743	4,579	4,023	556
Irail 2015	11,143	3,803	3,315	488
Abuz 2015	11,705	3,769	3,395	374
Uztail 2015	11,922	3,804	3,327	477
Ekain 2015	12,214	3,503	3,050	453
Maiat 2015	12,421	3,814	3,307	507
Apir 2015	11,880	3,804	3,323	481
Mar 2015	13,100	4,136	3,609	527
Ots 2015	12,708	4,106	3,634	472
Urt 2015	16,281	4,374	3,858	516

- 1 **Orrialdearen karga** – Zure webgunea bisitatu den aldi kopurua.
- 2 **Bisitari bakarrak** – cookie batean soilik oinarrituta, birritan egindako bisiten eta lehen bisiten batura da.
- 3 **Lehen bisitak** – cookie bakarrean oinarrituta, pertsona batek ez badu webgune honetako cookie-rik, webgunean sartzen den lehen aldia bezala kontatuko da.
- 4 **Birritan egindako bisitak** – cookie bakarrean oinarritua, pertsona hau zure webgunera itzultzen bada, ordu bete beranduago edota beste une batean.

2007-2015 Webgunearen bilakaera



2007-2015 bilakaera	Bisitatutako orrialdeak (1)	Bisitak (2)	Lehen bisita (3)	Birritan (4)
2015	152,833	47,504	41,685	5,819
2014	171,345	50,754	45,137	5,617
2013	231,490	65,448	58,745	6,703
2012	297,295	82,311	74,606	7,705
2011	315,057	85,004	77,446	7,558
2010	394,903	99,299	90,843	8,456
2009	412,616	103,408	94,739	8,669
2008	328,436	77,372	71,071	6,301
2007	264,763	48,223	43,653	4,570

1.c) Industria ondarea eta armei buruz jasotako kontsultak:

- **Webgune bidezko e-maila: 81**
- **Telefonoz: 47**
- Telefono bidezko kontsultek 100%eko igoera izan dute, aldiz, webgune bidezkoak %20 jatsi dira.

2. JARDUERAK

2.a) Funtsen dokumentazioa: euskarri informatikoan inbentario nahiz katalogazioa. Bildumen mantentze eta zaharberritzea.

2.a1. Museoko funtsen erregistroa, inbentarioa, katalogazioa eta informatizatzea. VII. fasea. 2015 urtea.

Azken sei urteetan, Armagintza Museoak Eusko Jaurlaritzako ENSIME programaren barruan katalogatu du bere ondarea. Programaren helburua Euskadiko Museoen fondoek katalogoak harremanetan jartzea da, ahal den neurrian, maileguak errazteko eta bilduma ezberdinen ondarean besteei ezagutarazteko. 2014. urteko uztailetik aurrera sarean (<https://www6.euskadi.net/r46-emsime/es/v09aNucleoWar/ciucFNuevaConsulta.do>) kontsulta daiteke.

Armagintza Museoaren ondareen katalogazioan, pieza bakoitzeko fitxa bat betetzen da non, xehetasunez, pisua, neurriak, materialak, kontserbazio egoera eta abarreko datu deskribatzaileak batzen diren. Era berean, egilea, funtzionamendua, historia eta harrerari buruzko datuak ere jasotzen dira. Fitxa guztietan piezaren argazkia txertatzen da. Fitxa bakoitzean katalogatutako funtsaren erregistro zenbakia adierazten da. Zenbakia bakarra da, beste inork ezingo du zenbaki bera izan. Objektua identifikatzeko, bere kokapena ezagutu, eta piezari buruzko gainontzeko datuak ezagutzeko balio du zenbaki honek.

Gaur arte, 9.170 pieza katalogatu dira museoan jasota dauden 15.000 pieza ingurutik, eta horietatik, 841, 2015. urtean. Katalogazioa ez da amaitu, eta bilduma handituz doa jasotako dohaintza egindako erosketa nahiz utzitako piezekin, ondorioz, irekita dago.

1. Museoko biltegian eta Portalea eraikineko bigarren solairuko artxibategian gordetako funtsen katalogazio eta inbentarioa EUSKARAZ eta GAZTELERAZ. Unean uneko azterketak emandako emaitzek igorritako datuak erabiltzen dira katalogaziorako. Era berean, Eibar eta oro har, eskualde osoko armagin eta aholkulari teknikoengana jotzen dugu momentu puntaletan informazio zehatzagoaren bila.
2. Erakusketarako edo eta biltegitratze espazioen antolaketa eta kudeaketa. Kaxa ezberdinen identifikazio eta berrantolaketa.
3. Arma biltegia txukuntzea. Bertan gordetako pieza asko lekuz aldatuta zeuden. Bakoitza bere lekuan kokatu, EMSIME datu basean erregistratu eta biltegian bertan ezartzeko zerrenda bat egin da (Arma bakoitzaren erregistro zenbakia eta kokapena zehazten dira bertan). Bildumako funtsen kopurua hain handia izanik, ezinbestekoa da kokapenaren kontrola egunean edukitzea.
4. Armeria Eskolako korrespondentzia guztiaren digitalizatu eta artxiiboak EMSIME n argitaratu.
5. Funts dokumentaletan eta hauen argitalpenetan katalogatutako marrazki zein argazkiak digitalizatu.

6. Katalogaziotik kanpo dauden liburuak digitalizatu eta hauek museoko webgunearen Liburutegia sailean argitaratu.
7. Museoan ikusgai dauden piezen katalogazio fitxak zuzendu eta osatu. Erantsi beharreko informazioa J.Luis Valenciagak Museoko katalogo berrirako prestatutako fitxetan oinarritu da.

Museoko funtsen erregistratzea, inbentariatzea katalogatu eta digitalizatzeko arduraren Ereiten kultur zerbitzuen enpresa-k hartu du bere gain eta 400 ordu eskaini dizkio lan honi

ERREGISTROAREN HANDIAGOTZE GASTUA..... 11.810,43€

2.a2. Funtsen garbiketa eta zaharberritze programa 2015

Hona hemen 2015. urtean Armagintzaren Museoak egin duen zaharberritze lana:

Eibarko irasuegi inprentak emandako txantilo tipografikoen artxiboa. Zuarde-k egindako lana.

Zaintze egoera

Zikinkeria orokorra
Hezetasunaren ondorioz izandako kalteak: oholak askatuta, orbanak, onddoak, etab.
Xilofagoen eraso
Zenbait kaxoi eta artxibagailu falta dira
'Atril' labaingarrien eta hainbat artxiboen jatorrizko oholen ordezkari, aglomeratua dute
Jatorrizko altzariaren estalkia
Artxiboaren jatorrizko zenbakitzea galduta

Tratamendua

Garbiketa
Aglomeratuz zein formikaz egindako oholak egurrezko ijeztuengatik ordezkatu.
Altzariaren jatorrizko kolorearen berdina izan dadin tindatu.
Hezetasuna dela eta, aldatzeko beharra duten altzariaren aldeak kolatu eta berriengatik ordezkatu. Kasu honetan, tindatu
Falta diren kaxoi nahiz artxiboen aurrealdea egin. Horretarako, gaztainondo zaharraren egurra erabili.
Falta diren zenbakitzeak berritu.
Intsektuak hiltzea. Gas *Argon* erabiliz sendatze tratamendua. Prebentzio tratamendua egurra pipiak jota dagoen lekuetan.
Berniz satinatuarekin akabera.
Heldulekuei metalentzako berniza eman.
Jaso eta itzuli

‘Vocanegra’ trabukoaren hertzea zaharberritzea. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Bernizatua
Xilofago intsektuak direla eta ahulduta
Esku-babesaren zati bat falta da

Tratamendua

Garbiketa
Berniza desugertu
Parasitoen aurkako tratamendua
Ahuldutako zatiak sendotu erretxin likidoa erabiliz
Esku-babesari falta zaion zatia berreraiki erretxina erabiliz
Argizari naturalarekin akabera

Errepikapen fusilaren hertzea zaharberritzea. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Bernizatua

Tratamendua

Garbiketa
Berniza desugertu
Parasitoen aurkako tratamendua
Argizari naturalarekin akabera

Star enpresatik ekarritako Triumdex Eibarko artxibatzaile metalikoa, gutxi gorabehera 1930ekoa. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Hainbat kaxoi ezin dira ireki
Zikinkeria
Herdoilduta

Tratamendua

Garbiketa
Kaxoi guztiak arindu
Herdoilaren aurkako tratamendua
Akabera metalentzako berniz bereziarekin

Tailerreko 5 lanpara. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Herdoilduta eta zikinduta
Kableak egoera txarrean
Mugitzen diren zatiak ez dute behar bezala funtzionatzen

Tratamendua

Garbiketa
Mugitzen diren zatiak arindu
Herdoilaren aurkako tratamendua
Kableak ordezkatu eta entxufe batekin amaitu

Akabera metalentzako bernizarekin

Tailerreko bi bandejen zaharberritzea. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Oso zikinak
Zati batzuk apurtuta eta besteak falta
Batek plastikozko heldulekua du

Tratamendua

Garbiketa
Parasitoak kendu
Apurtutako zatiak konpondu
Bestearen forma bera duen heldulekua egin
Egurra babesteko produktuarekin amaitu

Grabatzeko torlojuaren oinarriaren zaharberritzea. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Intsektuen erasoaren ondorioz egurrak sendotasuna galdu du

Tratamendua

Aspaldiko egurra erabiliz oinarria zaharberritu
Argizariarekin amaitu


Marruko kainoia zaharberritu. Zuartek egindako lana.

Zaintze egoera

Margotuta eta bernizatua
Xilofagoek erasotu dute agian
Gurpiletako baten erradioa apurtuta dago

Tratamendua

Berniza eta margoa desagerrarazi desugertzaileak erabilita
Apurtutako erradioa sendotu
Intsektuak hiltzea. Gas *Argon* erabiliz sendatze tratamendua. Prebentzio tratamendua egurra pipiak jota dagoenean.
Zati metalikoen akabera. Burdinari espektro beltz matearen eta margotu gabekoaren itxura emango dion burdin babeslea eman. Brontzea garbitu egingo da, ondoren, hau aplikatzeko.



11 armen garbiketa. Parkemy-k egindako lana.

Zaintze egoera

Zikinak

Tratamendua

Armak desmuntatu

Petrolioarekin garbitu

Herdoila kendu

Lehortu, eta zuritutako alfazko olioarekin koipeztatu

Makinak garbitzea: ALFA fresatzailea eta EGO zulagailua. Parkemy-k egindako lana.

Zaintze egoera

Oso zikinak

Tratamendua

Herdoildutako zatiak petrolioarekin garbitu

ALFA josteko makina eta honen altzariaren zaharberritzea. Restaurartek egindako lana.

Zaintze egoera

Orokorrean, zaintze egoera ona du ALFA josteko makina honek, baina zenbait zatitan, pipien eraso oso nabarmena da (batez ere, altzariaren hertzetan eta oinarrian). Honez gainera, denboraren poderioz bildutako zikinkeria besterik ez du, ondo zainduta dago.

Tratamendua

Intsektuak hil anoxia 60G erabilita

Pipiak jandako zatiak desugertu

Altzaria garbitu denboran zehar bildutako zikinkeria kentzeko

Pipien zuloak tapatu

Desugertutako atalak bernizatu, altzariaren beste zatien antzerako kolore eta dirdira duen bernizarekin.

Argizariarekin akabera

Pieza metalikoen garbiketa (pedala, gurpila eta makina)



Zaharberritzeen gastuak

Parkemy Raul Manzano	Alfa eta Ego makinaren zaharberritzea	363,00
Parkemy Raul Manzano	11 armen garbiketa	399,30
Restaurarte		583,22
Zuarte	Alfa josteko makinaren eta honen altzariaren zaharberritzea	1.488,30
Zuarte	Marruko kainoiaren eta txantilo tipografikoen artxiboa zaharberritzea	3630
Guztira/total		6.463,82€

2.b) Edukiak zabaltzeko programa

b1. Bisita gidatuak

Taldeentzako bisita gidatuen urteko egitasmoa.

Balio eta helburuak:

- Heziketa eta entretenimendua: Historia eta industria ondareari buruz modu atsegina eta erakargarria aritzea.
- Historia, artea eta industria ondarea errespetatzeko beharrezko oinarrituta hezi eta nortasun kulturala indartu.
- Bisitari bakoitzak dituen ezaugarri eta beharretara moldatutako arazoibide erakargarri eta koherentea bermatzea.

Hau horrela izanik, honakoak hartzen ditugu kontutan:

- Bisitariaren profila: adina, jatorria, heziketa maila, zaletasunak
- Taldeak izan dezakeen jakin-mina edo motibazio desberdinak
- Taldearen izaera: familia taldeak, atzerritarrak, elkarteak, behar bereziak dituzten talde edo norbanakoak, erakunde ofizialetako ordezkariak, etab.
- Erakunde ofizialetara egindako bisitak

Bisitaren iraupena: 60 eta 75 minutu artekoa (taldearen beharren arabera).

Bista gidatuak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez eskaintzen ditugu.

Zuzendaritzak islatutako museo diskurtsoko oinarritzko kontzeptuak transmititzea da bisita gidatu bakoitzaren helburua. Gidariaren diskurtsua, talde bakoitzaren ezaugarri (adina, kopurua, jatorria, etab.) eta interesetara egokitu da, honela, bisitariari ematen zaien mezua modu eroso eta atseginean jasotzeko lan eginez.

Ikastetxe, elkarte edota herritar taldeak artatu dira, 70 bisita gidatu, guztira.

Igoera nabarmena izan da, 39 izatetik 72 izatera pasa baita. Gehientsuenak, euskaraz nahiz gaztelaraz egin dira. Ingelesez, 3 eta frantsesez bakarra.

eguna	hilabetea	Bisita zenbakia	hizkuntza	Bisitari kopurua	jatorria
15	URTARRILA	1	GAZTELANIAZ	25	CEPA ERMUA

18	URTARRILA	1	EUSKARAZ	20	ETA KITTO! ELKARTEA
31	URTARRILA	1	GAZTELANIAZ	18	HIERROS SAINZ
7	OTSAILA	1	GAZTELANIAZ	20	SAN TELMOKO LAGUNAK
13	OTSAILA	1	GAZTELANIAZ	13	LANBIDE
28	OTSAILA	2	EUSKARAZ	40	GETXO
7	MARTXOA	1	EUSKARAZ	4	PUBLIKO OROKORRA
10	MARTXOA	1	GAZTELANIAZ	21	DONOSTIA
11	MARTXOA	2	GAZTELANIAZ	50	EPA ARRASATE
18	MARTXOA	2	EUSKARAZ	46	SASABURU IKASTOLA
18	MARTXOA	1	EUSKARAZ	25	Argatza ikastola
25	MARTXOA	3	EUSKARAZ	75	MOGEL IKASTOLA
25	MARTXOA	2	GAZTELANIAZ	40	EIBARKO ZENTRO SOZIALA
25	MARTXOA	2	EUSKARAZ	50	SAN ANDRES ESKOLA
7	APIRILA	1	GAZTELANIAZ	6	DIRECTIVOS RAYO
15	APIRILA	2	GAZTELANIAZ	30	ESC CRIMINOLOGIA MURCIA
17	APIRILA	1	INGELESEZ	22	UNI- ALEMANIAKO IKASLEAK
18	APIRILA	1	GAZTELANIAZ	22	HOFFMAN EMPRESA
24	APIRILA	3	EUSKARAZ	72	ITZIO IKASTETXEA
30	APIRILA	4	GAZTELANIAZ	86	CEPA EIBAR
4	MAIATZA	1	GAZTELANIAZ	20	BIZI HARRERA EIBAR
7	MAIATZA	1	GAZTELANIAZ	15	ARMERIA ESKOLA
18	MAIATZA	2	EUSKARAZ	27	PUBLIKO OROKORRA
23	MAIATZA	1	INGELESEZ	11	ARRASATEKO AKADEMIA
27	MAIATZA	2	EUSKARAZ	29	EUSKALTEGIA
17	IRAILA	1	GAZTELANIAZ	23	VIATGES ARGENSOL
1	URRIA	2	GAZTELANIAZ	40	TAXI DONOSTI
2	URRIA	2	EUSKARAZ	38	ARRATEKO IKASTETXEA
3	URRIA	1	GAZTELANIAZ	18	MARRAZKILO TX. TALDEA
13	URRIA	1	FRANTSESEZ	29	BATXILERGOKO IKASLE FRANTSESAK
15	URRIA	4	GAZTELANIAZ	60	URKOTRONIK
16	URRIA	1	INGELESEZ	13	LEGAZPIKO INSITUTUA
17	URRIA	1	EUSKARAZ	7	GONZALO ORBEA ETA LAGUNAK
19	URRIA	1	GAZTELANIAZ	25	MUJERES AL CUADRADO
20	URRIA	1	EUSKARAZ	25	?? 8 URTEKO IKASLEAK

20	URRIA	1	EUSKARAZ	25	?? 8 URTEKO IKASLEAK
20	URRIA	1	EUSKARAZ	25	?? 8 URTEKO IKASLEAK
22	URRIA	1	GAZTELANIAZ	25	CRUZ ROJA ERMUA
23	URRIA	1	GAZTELANIAZ	20	Fpko irakasleak
9	AZAROA	2	EUSKARAZ	44	SAN ANDRES ESKOLA. LH6
12	AZAROA	2	??	40	EIBARREKO EPA
16	AZAROA	1	GAZTELANIAZ	20	EIBARREN BIZI
21	AZAROA	1	GAZTELANIAZ	16	JOSEFRAN AGUIRREBEÑA (BOJ)
29	AZAROA	1	GAZTELANIAZ	9	J.M ACHA-ORBEA
10	ABENDUA	2	GAZT.+EUSK	48	ARMERIA ESKOLA
12	ABENDUA	2	GAZT.+EUSK	35	BERDIN (ENPRESA)
12	ABENDUA	2	GAZTELANIAZ	40	ASOC. PERSONAS SORDAS GIPUZKOA

Bisita gidatuen bilakaera

Urtea	Bisita kopurua
2007	36
2008	47
2009	43
2010	60
2011	41
2012	67
2013	36
2014	39
2015	72
Guztira	441

Enpresek beraien bezeroekin egiten dituzten bisita eta ekitaldietan, eskaintzen dituzten produktuen **balio erantsi garrantzitsua bihurtu da museoa 2015.urtean**. Igo egin dira museoan beraien ekitaldiak antolatu dituztenak.

b2. Ekitaldiak eta tailerrak

Jolastera? Museora!



Emakumearen Nazioarteko egunaren bezperarekin bat eginik, martxoaren 7an, Armagintzaren Museoak ekintza berria sustatu zen: **Zer nolako biharra emakumeena!** 8-99 urte bitarteko edozein norbanakori zuzendua. Hitzordua, arratsaldeko 5etan izan zen.

Belaunaldi desberdinen arteko topaketa bezala aurkeztu zen, ama eta seme-alaba, amona eta biloba, zein izeba eta ilobei zuzendua. Gazte zein helduentzat, azken finean.

Izaskun Gastonek dinamizaturik, **jarduerak bi zati** izango zituen. Lehenik eta behin, Eibarko emakumeen ofizioen irudiekin ohizko **Memory** jolasean parte hartu zuten. Emakume hauetako asko historian oso garrantzizko izan dira eta helduentzat ezagunak dira. Jolas kooperatiboa da: inor ez da galtzaile aterako, denok irabazle.

Irudi bikotea topatzean, taldeak, ofizio bat egokituko dio eta berari buruz dakien guztia partekatu behar du: zer zuen, edo duen, oinarri, burutzeko jakin beharrekoa, lan baldintzak, eta lana burutzen zuen edo duen, norbait ezagutzen duten. Helduen jokaera funtsezkoa da gazteenei ezagutza eta bizipen pertsonala transmititzeko.

Ondoren, **museoa begirada desberdin batekin bisitatzeko aukera** izango dute. Gidak areto ezberdinetatik eramango du taldea eta Eibarko industrian emakumeek izandako papera azalduko du, udal bildumak dituen piezen laguntzaz. Etorri eta ulertuko duzu zergatik "Zure bizikleta martxan jar ezazu!" izenburua jarri diogun...

Tailerraren izena: Zer nolako biharra emakumeena!

Lekua: Armagintzaren Museoa

Eguna: martxo 7

Ordua: 17:00

Hizkuntza : euskaraz



	<i>“Zer nolako biharra, emakumeena!”</i>			
Data	2015-03-7			
Parte hartzaileak	guztira	Emakum.	Gizon.	Haurrak
	3	2		1
Egunak	1			
Jardueraren gastua	Ereiten 54,45			
Gastua parte hartzaileko	18,15€			
	Euri eta hotzez betetako lau hilabeteren ondoren, egun eguzkitsua atera zen...			

Jarduera hau garatzeko PVC-ko 30 piezek osatutako material didaktikoa egin zen. Lan hau DRUK enpresak egin zuen eta honen gastua 217.80€koa izan zen. Gastu hau ez da jardueraren gastu koadroan txertatu, beste jarduera batzuetan berrerabiliko den inbertsioa baita.

“Crónicas en la frontera” liburuaren aurkezpena

Pasa den apirilaren 9an, osteguna, arratsaldeko 19.00etan aurkeztu zuen Denis Itxasok bere liburua, “Crónicas de la frontera”, eibarko Armagintzaren Museoko harrera gunean.

«Este libro me permite presentarme como algo más que un político, con mis inquietudes, aficiones culturales, mis viajes, facetas no conocidas de mi vida. También escribo de política, hablo de la violencia, de la vulneración de los derechos humanos, de la basura...», explicaba en la presentación. « Yo me he sentido siempre una persona fronteriza. Pasqual Maragall me definió como socialista de Ikastola y es que estoy convencido de que el socialismo vasco debe ampliar su tradicional base electoral y llegar a las nuevas generaciones y a las clases medias. Escribir me permite cultivar una de mis aficiones. Yo me dedico a la política pero no me obsesiono. Siempre saco tiempo para otras facetas de mi vida. Es muy necesario».



Bertaratuak: 30 pertsona
Prentsako artikuluak
Diario Vasco 9-04-2015 laburra
El Correo 9.04-2015 laburra

Ekitaldiaren gastua 0€

Jesika Martinez-Alcocer diseinatzailearen ANIMAL CULTURE markaren aurkezpena

Ilustrazioan eta oihal estanzazioan oinarritutako proiektu bat da Animal Culture. Artisau-ekoizpenaren bitartez, edizio mugatuak sortu ditu, serigrafia teknikaren bidez produktu eskusiboak eskaini; kamisetak, jertseak eta oihalezko poltsak, guztiak eskuz estanzatuak.

Gainera, animal-gizakientzako sortutako marka da. Hau da, natura eta kultura artean oreka izatea posible dela uste dugun guztiontzako.

Eguna: Maiatzaren 6an

Lekua: ARMAGINTZAREN MUSEO-ko harrera lekuan

Ordua: 19:00etan

Erakusketa: Maiatzaren 6tik 15ra

Sarrera dohainik



Data	Maiatzak 6tik 15era			
Parte hartzaileak	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	UMEAK
	174	73	76	21
Egunak	8			
Eguneko batezbesteko gastua	21,75			
Prensa dossierra	Diario vasco 6.05-2015 motza Correo 6.05-2015 motza Diario vasco 8-05-2015 orrialde erdia Eta kitto 929zkia. 2015-V-8 orrialde osoa (e) kultura 138			
Gizartean eragina	ona			
Jardueraren gastua	Tarjeta Egoprint 271,24€			
Parte hartzaileko gastua	1,55€			

Museoen Nazioarteko Eguna

Munduko museoen elkarteak maiatzaren 18aren bueltan hainbat ekitaldi antolatuko zituen 37. Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko. 2015ean, Museoen Nazioarteko Egunaren gaia **“Gizarte jasangarria baterako museoak”** izan zen.

“Gizarte jasangarria baterako museoak” gaiak aitortzen du museoek duten egitekoa, publikoa gizarte solidarioago baten beharraz kontzientziatzeko. Honela, gizarte ez dadin hain xahutzailea izan eta errekursoak aprobetxa ditzan sistema biologikoak errespetatuz.

Gizarte jasangarriaren kontzeptu hau museoari aplikatuta, Museoen Nazioarteko Egunaren gaiak ondorengo sustatu nahi du: gizartearen kontzientzia hartzeaz, gizakiaren eraginak gure planetan gaur egun dituen ondorioez, eta eredu ekonomiko nahiz soziala aldatzeko dagoen beharraz.

Armagintzaren Museoak egitarau hau antolatu zuen egun hori ospatzeko.

Maiatzak 16

Ate irekiak ohiko ordutegian, 16.00etatik 20:00etara
Sarrera dohainik

Tailerrak:

Bitxigintza industrialak: bi saio, 17:00etan eta 18:30ean. Bakoitzean, gehienez, 15 partaide.
Banderatxoaren birziklapena: bi saio, 17:00etan eta 18:30ean. Bakoitzean, gehienez, 15 partaide.

Maiatzak 17

Ate irekiak ohiko ordutegian, 10.00etatik 13:00era
Sarrera dohainik

Bisita gidatua erdaraz 10:15ean. 20 lagunentzat. Iraupena ordu bete
Bisita gidatua euskaraz 11:30ean. 20 lagunentzat. Iraupena ordu bete
Bisita eta tailerretan parte hartzeko izena eman behar da, aurrez, museoko telefonora deituz (943708446) maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 16.00etatik 20:00etara.





	guztira	Emakumezkoak	Gizonezk.	Haurrak
Museoko parte hartzaileak	27	11	5	11
Tailerreko parte hartzaileak	46	16	7	23
Jardueraren gastua	Birziklapen tailerra Ana Orozko 556,60€ materialak KIÑU 9,74 bisitak eta tailerra EREITEN 217,80€ Guztira 783,24€			
Parte hartzaileko gastua	10,72€			

Gureak 40

2015. urtean, GUREAK bere 40.urteurrena bete zuen, eta honek azken bost hamarkadetan bizitakoa eskaintzeko asmoz, aldi baterako erakusketa bat antolatu zen. Bertan, taldea osatzen dutenen barrena nolakoa den erakusten da, honen funtzionamendua.

Bideo, argazki, marrazki, etab.-ez jositako erakusketa izateaz gainera, bisitarien parte hartzea bultzatu da, ESPERIENTZIEN TAILERRA-ren bitartez.

'Gaitasunak sendotzen' Gureak tailerra
Tailerra: jolasaren bidez, desgaitasunak hobeto ulertzen.

GUREAK elkartearen 40. urteurrena dela eta, tailer bat eskaini nahi diegu guztiei eta, bereziki, umeei: Esperientzien Tailerra.

Tailer honen bitartez, desgaitasuna ulertarazi nahi dugu, beti ere, jolasaren bitartez. Bertaratzten direnek uler dezaten, GUREAK elkarteko langileekin batera, laguntasunaren eta jarrerren garrantzia.

Bertaratuak: 180 pertsona
Iraupena: 3 egun
Batezbestekoa: 60 pertsona
Prensa dossierra:

Eta kitto 929zkia. 2015-V-8 bi orrialde
(e) kultura 138
Diario vasco 22-05-2015 orrialde erdia
El correo 22-05-2015 orrialde erdia

Jardueraren gastua: 0€



WE ARE MAGMA markaren aurkezpena



WAM markak aukera ezberdina izan nahi du, “street” modan erreferentzia. Etiketetatik ihes egitea da haren asmoa, joera —joera hutsa delako— jarraitzetik aldentzea, eta, besterik gabe, bere sormen osoa eta bizitza ulertzeko modua kalitatezko jantzietan proiektatzea. Hiru enpresaren bat-egitetik sortutakoa da: Anemona Studioa, Sortumedia S.L. eta Li&Co. Hirurek beren jarduera diseinu grafikoaren, ikus-entzunezkoen eta oihalgintzaren eremuetan garatzen dute, eta Euskadin bertan daude.

Eguna: Ekainaren 4an

Lekua: ARMAGINTZAREN MUSEOA-ren harrera lekuan

Ordua: 19:00etan

Erakusketa: Ekainaren 6tik 12ra

Sarrera dohainik






IZENBURUA	WE ARE MAGMA			
DATAK	2015eko ekainak 4tik 12ra			
BISITARI KOPURUA	Guztira	Emakum.	Gizonez.	Haurrak
	222	118	92	12
Egunak	5			
Eguneko batezbestekoa	44,4			
Prentsako eragina	ona			
Prentsa dossierra	Eta kitto 15/VI/29 . 932zkia laburra Eta kitto 15/VI/5 . 933zkia laburra Diario vasco 6/06/2015 ½ orrialdea El correo 6/06/2015 ½ orrialdea			
Jardueraren gastua	Ego print: 271,73			
Parte hartzaileko gastua	1,22			

Pilotaren mundua Eibarren

2015eko uztailaren 2an, euskal pilotari buruzko mahaingurua ospatu zen Eibarko Armagintzaren Museoan, Bernardo Atxagak gidatuta. Gaiari buruzko informazioa biltzea zuen helburu ekitaldiak. Hain zuzen ere, 'Erlea' aldizkariko hurrengo zenbakian artikulu bat osatzeko adina informazio eskuratzea. Euskaltzaindiak atera ohi du, eta, euskal pilota, fronteei nahiz espazioari eskainitako aldizkaria da, orokorrean.

Ondorengoek mahainguruan parte-hartu zuten: Bernardo Atxaga, Imanol Bustindui (euskara irakaslea), Rufino (karmelitetako frailea), Benjamín Azpilicueta, José Agustín Larrañaga, Patxi Mutiloa, Iñigo Azpiazu, Fede Ugarteburu, Alberto Oyarzabal, Jose Mari Bengoetxea, Heracio Echeverria eta Marina Barrena.



Publiko frantsesarentzako edukiak: webgunea eta erakusgelako eskuko testuak

Frantziako hainbat komunikabidek, telebista zein espezializatutako aldizkariak, Armagintzaren Museoan, gure arma industrian zein hirian jarri duten interesa dela eta, bai artikulua bai dokumentalak eskainiz, eta publiko frantsesaren igoera aurreikuspena medio, aurten ondorengo bi moldaketak egin dira:

1. Web gune osoaren itzulpena, CODESYNTAX enpresaren ardurapean eta 2.081,8€ko gastuarekin.
2. Erakusgelarako frantsesezko testuak BITEZ enpresak itzuli ditu eta honekin koaderno osatu du, 1.288€ko gastuarekin.

Mugikortasunaren Europako Astea



Bizikleta eta garraiobide autonomo berritzaileenak ezagutzeko aukera izan zuten, 2015eko irailaren 25a eta urriaren 4a bitartean, Eibarko Armagintzaren Museora hurbildu ziren lagunek.

Erakusketara gerturatu zirenek ibilgailu hauen funtzionamendua aurrez-aurre ezagutu zuten, arduradunen eskutik.

Armagintzaren Museoaren bidez, bat egin zuen Eibarko Udalak Mugikortasunaren Europako astearekin. Aurtengo leloak, «**Aukeratu, aldatu, konbinatu zure mugikortasuna**», erabiltzen ditugun mugitzeko erak hobeto pentsatzeak duen garrantzia azpimarratu nahi du, kasu bakoitzean garraiobide egokienak eta jasangarrienak erabiliz eta konbinatuz.

Udalak mugikortasun eraginkorrerako alternatiba berriak erabiltzearen garrantziaz kontzientziatu nahi izan ditu eibartarrak, hau da, azken urteetan garatu diren garraiobide osasungarriak zabaldu ditu.

Erakusketa honetan, bisitariak bizikleten azken modeloak eta garraiobide autonomoak ezagutu zituzten, hirian barrena era jasangarrian mugitzeko eta ingurugiroa zaintzeko bideak. Neurri hauek airearen kalitatea hobetzen dute, zarataren ondorioz sortutako kutsadura gutxitzen dute, eta, gainera, obesitateari aurre hartzen laguntzen dute.

2015eko Mugikortasunaren Europako Astea zela eta, Eibarko Armagintzaren Museoak Orbea, BHBKERS, BIZIBAİK, Seg Way eta Elortza Ortopedia-ren laguntzarekin **"Pedalei eraginez etorkizunerantz"** erakusketa antolatu zuen irailaren 25etik urriaren 4ra. Bertaratuko lagunek, ondorengoak bertatik-bertara ikusteko aukera izan zuten: Scooterrak, bizikleta elektrikoak edo segway-ak. Hauetako modelo batzuk erabiltzeko aukera izan zuten, gainera.



Parte hartzaileak: 299 pertsona
Eguneko batezbestekoa: 42,71 pertsona
Prensa Dossierria
El correo 24-09-2015 laburra
El diario 24-09-2015 laburra
El correo 27-09-2015 orrialde osoa
El diario 27-09-2015 orrialde osoa
e-kultura urria 141 zbk
eta kitto

Jardueraren kostua
Pegatina Anemona ... 363,00€
Rotulación Ideiak 137,82€
Transporte Azkar 116.23€
Segur o AON mafre 265,38€
Guztira 918,43

Aste teknologikoa

